

HISTORIAURREA ETA BERE ETAPAK

Gizateriaren historia bi aldi handitan banatzen da, gertakari oso garrantzitsu batek markatuta: idazketaren asmakuntzak. Bi aldi horiek honako hauek dira:

- A) **Historiaurrea**: idazketa agertu aurretik.
- B) **Historia**: idazkera agertu zenetik gaur arte.

Historiaurrea da etaparik luzeena, eta gizakiak aurkitu dituen aztarnei esker dakigu nolakoa izan zen. Historiaurrean hiru etapa nagusi bereizten dira:

1. ETAPA: K. a. 8.000 arte iraun zuen **PALEOLITOAK**. **Antzinako harria** esan nahi du, lanabesak **harri landuarekin** egiten zituzten eta gizakia ehizatik eta bilketatik bizi zen. Nomadak ziren. Hiru alditan banatzen da:

- A) **Behe Paleolitoa**: lehenengo tresnak egiten dituzte eta sua agertzen da.
- B) **Erdi Paleolitoa**: tresnak hobetu ziren.
- C) **Goi Paleolitoa**: gizakia agertzen da bere egungo ezaugarriekin, eta lehen adierazpen artistikoak egiten ditu, labar artea, haitzuloetako hormetan margotuz.

2. ETAPA: K. a. 8000etik K. a. 4.000 arte iraun zuen **NEOLITOA**. Garai honetan, lanabesak, **harri leunduarekin** egiten zituen. Nekazaritza eta abeltzaintza deskubritu zituzten, eta sedentarioak egin ziren. Merkataritza agertzen da.

3. ETAPA: **METALEN aroa**, K. a. 4.000 urteaz geroztik iraun zuena. K. a. XI. mendera arte. Bere izena, erremintak **metalekin** egiten zituelako da. Hiru aldi nagusi bereizten dira erabilitako metalaren arabera:

- A) **Kobre Aroa**: gogortasun gutxiko metala.
- B) **Brontze Aroa**: gogorragoa eta erresistenteagoa.
- C) **Burdin Aroa**: oso erresistentea.

Idazkera erabiltzen hasi ziren.

Merkataritza agertu zen, hasieran trukean oinarritzen zena, eta ondoren txanpona erabiltzen hasi ziren